

BASKEPENSIONES 30 GAPI



INBERTSIO POLITIKA

Errenta aldakor nazional eta nazioartekoa neurrian erabilia, gehienez %30, epe ertain eta luzean errentagarritasun erakargarriak lortu nahi dituzten pertsonentzat. Planak, bere inbertsioekin, ingurumen alderdiak edo/ ta alderdi sozialak sustatzen ditu (2019/2088 (EB) Erregelamenduaren 8. artikulua) eta kontrako gorabehera nagusiak (inbertitzen dituen enpresek ingurumenean edo/ta gizartearen eragindako inpaktu negatiboak) arriskuen azterketan eta inbertsio-erabakietan txertatzen ditu.

2024/03/31ra Errentagarritasunak UTB

1 hilekoa*	3 hilekoa*	Urtekoa*	Urte 1	Urte 3	Urte 5	Urte 10
%1,46	%2,03	%2,03	%6,13	-%1,11	%0,91	%0,93

*Urtebete baino epe laburragoak diren errentagarritasunak ez dira urtekoitzen.

2024	2023	2022	2021	2020	2019	2018
%2,03	%6,70	-%12,68	%3,04	%2,97	%7,93	-%5,65

*Iraganeko errentagarritasunek ez dute garantizatzen etorkizuneko errentagarritasunik.

2024/03/31ra Estatistikak

Lurrunkortasun 1 urte**	%3,43
Lurrunkortasun 3 urte**	%4,50

**Informazio hau ez dago erabilgarri, fondoaren antzintasuna edo inbertsio-politikaren azken aldaketatik igaro den denbora, adierazitako epea baino txikiagoa denean.

EZAUGARRI OROKORRAK

Ondarea:	2.536.642.107,72
Komisioak guztira:	%1,60
Harpidetza komisioa:	%0,00
Errenboltso Komisioa:	%0,00
Arrisku-profila:	Ertaina
Inbertsiorako gutxieneko epea:	-



HILEKO IRUZKINA


Martxoan, inbertitzaileek datu makroekonomikoen argitalpenari begira jarraitzen zuten, diru-agintarien etorkizuneko mugimenduei buruzko arrastoen bila. AEBn argitaratutako datuek ekonomiaren sendotasunaz hitz egiten jarraitu dute eta enplegutxostenak haren sorreraren indarra adierazten zuten, langabezia-tasak gutxieneko mailetatik gora egin duen arren. Etxebizitzaren prezioen hazkundera ermito azkarrean bizkortzen ari zen 2022tik, eta 2023ko laugarren hiru hilekoko BPGaren berrikuspena gora egin zuen, +%3,4 urtekaturaino. Dinamismo horrek aurre egiten die inflazioaren erlaxazioaren joerari jarraitzeko itxaropenei, izan ere, hilabete honetan gorakada mugatua izan du, %3,2raino (nahiz eta azpikoa hamarren bat jaitsi), eta inflazio-tentsioek bere horretan jarraitzen dutela berretsi

du. Makro datuen berpizte horren ondoren, inbertitzaileek zalantzan jartzen zuten aspalditik adierazten zuten tasen jaitsieraren ereduak, FEDek udara arte ez zuela egingo onartu arte. 2024 urterako 3 jaitsierako plan bat taxutzen zuen azken bileran sinatu zuen hori. Atlantikoaren beste aldean, Europak bizi duen ahuleziaren barruan, datuek egonkortze mailakatu aurreikusten dute. Zerbitzuen sektorearen eta Euroguneko sektore konposatuaren adierazle aurreratuek uste baino hobekuntza handiagoa izan zuten. Alemaniak, ahulezia sintoma askoren ondoren, aurreikusitakoa baino esportazio zifra handiagoa argitaratu zuen, eta enpresa konfiantzari buruzko inkestak arnasa eman zion sentimendu negatibo horri, itxaropen ez hain ezkorrekin. KPlak moderatzen jarraitu du Eurogunean (%2,4 orokorra), Italian eta Frantzia bezala,


Espanian gora egin duen bitartean, baina prezioen ingurune positiboaren barruan. Hala eta guztiz ere, EBZk zuhurtiaz jokatzearan alde egiten jarraitzen du egungo moneta-politika murriztailea biratu aurretik, eta prezioen arloan egindako aurrerapenekin baikor agertu den arren, deseskalatzearen hasiera ere ekainera atzeratzen zuten. Munduko gainerako herrialdeetan, Suitzako bankua izan da lehena diruaren prezioa jaisteko prozesu horretan, eta balantzaren beste zatian, berriz, Japonia izan da mugimendu historikoaren protagonista, 17 urtean lehen aldiz igo baititu tasak. Hala, burtsek aurrerapen handiekin itxi dute hilabetea. Europako indize nagusien artean, Eurostoxx indizea %4,2 igo zen eta Ibox indizea %10,7, eta amerikarren artean, Dow Jones, S&P eta Nasdaq indizeak %2,08, %3,1

eta %1,17ko igoerakin itxi ziren, hurrenez hurren. Gainontzeko herrialdeetan, Nikkei %3,07 igo da eta emergenteak %2,18. Errenta finkoan tasak azkenean moderatu ziren, 10 urterako alemaniarra oinarritzko 11 puntu jaitsi zen %2,3raino eta amerikarra oinarritzko 5 puntu %4,2raino. Espainiarra oinarritzko 13 puntu jaitsi zen, Alemaniaren aldean bereizgarria oinarritzko puntu bat murriztu. Errenta finko pribatuak, berriz, bereizgarriak murrizten zituen. Dibisa eta lehengaiei dagokienez, dolarrik berriz ere etekina ateratzen zuten, euroaren aldean %0,14 soilik irabazi bazuen ere. Azken horrek %0,12 galdu zuen liberaren aldean. Yen txanpona, berriz, balioa galduz joan da eta Japoniako Bankuaren esku-hartze batekin espekulatu da balio galera geldiarazteko. Lehengaiei dagokienez, petrolioak %2,85 igo zen eta urrea %9,08.

Zorroaren banaketa



Errenta aldakorreko zorroaren banaketa geografikoa



Dokumentu honen xedea informazioa ematea da eta inolara ere ez da, ez kontratu-elementua, ez gomendioa, ez aholkularitza personalizatua, ez eskaintza, eta ez eskiera ere. Dokumentu honek ez du ordetzen edozein inbertsio erabaki aurretik legez kontsultatu beharrezko informazioa; legezko informazioa nagusitzen da edozein desadostasun izanez gero. Inbertsioak merkatuen gorabeheren mende daude, eta baloreetako eta beste finantzatresna batzuetako inbertsioetako berezko arriskuei lotuta; horregatik, Funtzaren eskuratzeko balioak eta lortutako errentagarritasunak gora nahiz behera egin lezakete, eta litekeena da inbertsioleak hasieran inbertitutako zenbatekoa ez berreskuratzea. Funtzaren legezko informazio-dokumentu guztiak (IFD, liburuxka, aldizkako txostenak, etab.) www.kutxabankgestion.es webgunean, enfitate komertzializatzaileen webgunean eta CNMVren erregistroetan kontsultatu daitezke.

BASKEPENSIONES 30 GAPI

BASKEPENSIONESEEN ONURAK:

- Aurrezteko finantza-tresna, zure etorkizuneko pentsio publikoa osatzen laguntzeko.
- Nahi duzun eta ahal duzun moduan aurrezteko malgutasun osoarekin.
- Inbertitzeko politika desberdina duten Baskepensiones desberdinen artean zure aurrezkiez askatasunez mugitzeko aukera, zure profilaren arabera hobeto egokitzeko.
- Konfiantza Kutxabanken. Epe luzerakoak izan daitezkeen eragiketetan garrantzitsua da.
- Onurak Kutxabankeko beste produktu batzuetan (gordailuetan, maileguetan, eta abarretan).

Eta gainera, banakako BGAE denez, PFEZaren Zerga Oinarria murrizten duten ekarpenetarako zerga-tratamendu onenaz balia zaitezke.

BASKEPENSIONES 30 PLANAK HONAKO ONURAK DITU:

KUDEAKETA PROFESIONAL AKTIBOA, inbertsioak merkatuen inguruabarretara egokitzeko. Eta **OROKORRA**, dibertsifikazio geografiko eta sektorialarekin.

ARRISKUAREN KONTROLA. Aktiboen analisi eta jarraipen etengabea egiten dugu errentagarritasunaren eta arriskuaren arteko oreka onena lortzeko.

EGUNEROKO JARRAIPENA

Espainiako ondare-kudeatzaile nagusietakoaren **ESKARMENTU ETA KALITATEA** (Kutxabank Gestión).



PROBA EZAZU ERRETIRORAKO GURE SIMULAGAILUA

Zure egoerari buruzko banakako txostena prestatuko dizugu. Simulagailuarekin zenbateko pentsioa kobratuko duzun, erretiroa hartutakoan bizimoduari eusteko zenbat aurreztu beharko duzun eta zure beharrianetara zein plan hobeto egokitzen zaizun kalkulatu ahal izango duzu.

Hasi etorkizuna planifikatzen,
Baskepensioneseekin:

SIMULAGAILUA

